

UPV/EHUn Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Probak (2025)

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu bakoitzari dagokion letra ariketa honen amaierako (9. orrialdeko) erantzun-taulan. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

1. Esaldi hauen artean, zein da OKERRA?

- a) Istripua gertatu da autopistan, kausa euria izanez.
- b) Euria dela eta, istripua gertatu da autopistan.
- c) Istripua gertatu da autopistan, euria tarteko.
- d) Euriak istripua eragin du autopistan.

2. *Nik _____ azkarrago iritsi da. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?*

- a) uste nuena baino
- b) uste baino
- c) uste nuena bezala
- d) uste nuen baina

3. *Iritsi ote den helmugara? _____ Zein EZ da erantzun egokia?*

- a) Auskalo!
- b) Jakitera eman!
- c) Batek daki!
- d) Batek jakin!

4. *Urtaro guztietan joaten naiz hondartzara, _____ beroetan, _____ hotzetan. Zein da hutsuneak betetzeko aukera zuzena?*

- a) Ø / bai
- b) bai / bai
- c) bai / nahiz
- d) zein / nahiz

5. Aukeratu ezazu egokiena:

- a) Joxerra Bengoetxea, UPV/EHUko errektorea dela gaur egun, Zuzenbidearen Filosofian katedraduna da.
- b) Joxerra Bengoetxeak, UPV/EHUko errektorea izendatua azken hauteskundeetan, katedra bat du Zuzenbidearen Filosofian.
- c) Joxerra Bengoetxea, UPV/EHUko errektorea gaur egun, Zuzenbidearen Filosofian katedraduna da.
- d) Azken hauteskundeetan UPV/EHUko errektorean bihurtu zen Joxerra Bengoetxea Zuzenbidearen Filosofian katedraduna da.

6. Aukeratu ezazu zuzena:

- a) Ez zuten uste herrira iristea hainbeste kostako zitzaienik.
- b) Ez zuten uste herrira iristea hainbeste kostako zitzaiela.
- c) Ez zuten uste herrira iristea hainbeste kostako zitzaien.
- d) Ez zuten uste herrira iristea hainbeste kostatzea.

7. Zientzialariek adierazi dute beroketa globalak uraren krisia ekarriko duela. Zein da esaldi horren baliokide OKERRA?

- a) Zientzialarien arabera, beroketa globalak uraren krisia ekarriko du.
- b) Zientzialariek esan dutenez, beroketa globalak uraren krisia ekarriko du.
- c) Zientzialariek esan dutenez bezala, beroketa globalak uraren krisia ekarriko du.
- d) Zientzialariek diotenez, beroketa globalak uraren krisia ekarriko du.

8. Temperaturak _____ altuagoak izan, _____ handiagoak izango dira arriskuak nahiz kalteak. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) Gero eta / hainbat eta
- b) Orduan eta / orduan eta
- c) Gero eta / gero eta
- d) Zenbat eta / hainbat eta

9. Aukeratu ezazu zuzena.

- a) Atzo hamar kilometro ibili ginen eta gaur beste horrenbeste ibili egin gara.
- b) Saldu ez, oparitu egin zidaten autoa.
- c) Erloju hori mila euro ordaindu egin zuten.
- d) Inguruan ikusi ez eta ozen deitu egin dio umeari.

10. Esaldi hauen artean, zein EZ da egokia euskara batuan?

- a) Behin aurrekariak azalduta, azter ditzagun ondorioak.
- b) Giltzak barruan utzita atera naiz etxetik, eta ateratakoan jabetu naiz.
- c) Hondartzara joaterakoan, amorrazio handia ematen dit zapatak hondarrez betetzeak.
- d) Gaua egiterako menditik bueltan eta aterpetxean egon behar dugu hutsik gabe.

11. Ikerketa batzuk argitaratu dituzte, _____ Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) non arazoak gure arreta osoa eskatu beharko luke.
- b) zeinen arabera arazoak gure arreta osoa eskatu beharko bailuke.
- c) arazoak gure arreta osoa eskatu beharko lukeela dioten.
- d) zeinen arabera arazoak gure arreta osoa eskatu beharko lukeela.

12. Esaldi hauen artean, zein EZ da zuzena ondarearen aldeko proposamena egiteko?

- a) Gure kultur ondarea galdu nahi ez badugu, has gaitezen zaintzen berandu izan baino lehen.
- b) Berandu izan baino lehen hasi behar dugu zaintzen gure kultur ondarea; bestela, galdu egingo dugu.
- c) Gure kultur ondarea galtzekotan, berandu izan baino lehen hasi beharko dugu zaintzen.
- d) Gure kultur ondarea salbatuko badugu, berandu izan baino lehen hasi behar dugu zaintzen.

13. Hain da handia krisia, _____ urte asko igarota ere lehengo bizi-maila berreskuratzea kostako _____. Zein da hutsuneak betetzeko aukera zuzena?

- a) zeren / dela
- b) non / baita
- c) ezen / dela
- d) non / da

14. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) Laster hasiko gara ahozko proba prestatzea.
- b) Badira 20 urte erretzea utzi niola.
- c) Merezi du ingurumenaren aldeko ahalegin txiki bat egitea.
- d) Animaliak babesteko neurririk ez hartzea kezkatzen nau.

15. Zuzendariari _____ lankideei ere kontatu nien gertatutakoa. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) ez ezik
- b) izan ezik
- c) gabe
- d) ezik

16. Ahalik eta aztarna ekologiko txikiena utzi beharko genuke _____. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) ingurumenan
- b) ingurumenarengan
- c) naturarengan
- d) naturan

17. Ez dugu presarik eta nahi duzuenean ekar _____ enkarguak. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) diezazkiguzuen
- b) diezaguzuela
- c) diezazkigukezue
- d) diezagukezue

18. Mila _____ galdetu zieten parke eolikoaz, eta _____ agertu ziren alde. Zein da hutsuneak betetzeko aukera zuzena?

- a) pertsonari / gehiengo
- b) bizilaguni / gehienak
- c) pertsonei / % 15 inguru
- d) bizilaguni / gehiengoak

19. Zuk halakorik espero gabe, lagunak huts egingo _____, barkatuko _____? Zein da hutsuneak betetzeko aukera zuzena?

- a) balizute / zenieke
- b) bazintuzte / zenuke
- c) balizute / lizukete
- d) balizukete / zeniekete

20. Herriko xelebreena _____ dute alkate. Zein da hutsunea betetzeko aukera OKERRA?

- a) aukeratu
- b) izendatu
- c) jarri
- d) jo

21. Behar duzue _____? Ez, ez dugu _____ behar, eskerrik asko. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) zerbait / ezer ez gehiago
- b) gauzaren bat gehiago / besterik ez
- c) besterik / ezer ere ez
- d) besterik /ezer gehiago

22. Mundua oso nahasita dabil azken boladan, eta _____. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) hori kezkatzzen zait
- b) horrek kezka eragiten nau
- c) horrek kezkatzzen nau
- d) horrek kezkatzzen dit

23. Aspaldi elkarren berri izan gabe, eta _____ gelditu ziren. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) elkar bazkaltzeko
- b) elkarri ikusteko
- c) elkar
- d) elkarrekin bazkaltzeko

24. Berehala _____ lan horiek _____. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) ekingo dizkiogu /egiteari
- b) helduko diegu / egiteari
- c) hasiko gara / egiten
- d) hasiko ditugu / egiten

25. _____ galdetu beharko _____ hori, ez besteri. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) Guri geuri / geniguke
- b) Norberari / genioke
- c) Buruari / lioguke
- d) Geure buruari / genioke

26. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) EAEko bost enpresen kontu-ikuskapenak egin dituzte .
- b) EAEko bost lantegien kontu-ikuskapenak egin dituzte.
- c) EAEko bost enpresaren kontu-ikuskapenak egin dituzte.
- d) EAEko bost enpreseen kontu-ikuskapenak egin dituzte.

27. Urteak _____ aukera horren zain. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) neraman
- b) neramatzan
- c) nebilen
- d) dihardut

28. Esaldi hauen artean, zein dago zuzen idatzita?

- a) Gauzak ahalik eta ondoen egiteko asmoz ekin genion lanari.
- b) Ongi etorri beroa egin zioten.
- c) Ikaslegoaren % 60a zuzendariaren erabakiaren kontra daude.
- d) Normalean lau urtero izaten dira hauteskundeak.

29. Esaldi hauen artean, zein dago zuzen idatzita?

- a) Pirineosetan ederki ibili ginen udan.
- b) Canariasko giroa bikaina da.
- c) Alpetan daude Europako mendi ospetsu asko.
- d) Landetara joan beharko genuke aspaldiko partez.

30. Esaldi hauen artean, zein dago zuzen idatzita?

- a) Zenbatnahi goxoki har ditzakezue.
- b) Nire lagun batzuri gertatu zitzairen hori.
- c) Lau kiloko haur puska izan du.
- d) Presaka eta korrika etorri arazi ziguten.

31. Azkenean, noiz izango da afaria? Zein erantzun dago zuzen idatzita?

- a) Uztailak 21, iluntzeko 9:30etan.
- b) Uztailaren 21an, iluntzeko bederatziak aldera.
- c) Uztailaren 21, iluntzeko 9:15ean.
- d) Uztailaren 21ean, iluntzeko 9:00etan.

32. Aukera hauen artean, zein EZ da zuzena?

- a) Elikadura osasuntsuaren alde egin behar da.
- b) Egunean bost otordu egitera aholkatzen dute.
- c) Afaria prest dago mahaian.
- d) Zein ordutan jarri duzue janaria?

33. Aukera hauen artean, zein EZ da kalko okerra?

- a) *Zuhaitz aparteokoak* bezala ezagutzen dira gure herriko zenbait ale.
- b) Irakasle bezala ari da Lehen Hezkuntzan.
- c) Etorkizuneko energia bezala hartzen da hidrogenoa.
- d) Guk aurreikusi bezala joan dira negoziazioak.

34. Henrike IV.a, Nafarroako eta Frantziako erregea, Parisko kaleetan zehar zihoala hil zuen 1660an katoliko fanatiko batek _____. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) xurgagailuz
- b) labankadaz
- c) eztikeriaz
- d) eskutadaz

35. Zein zerrendatan dago hitz bat tokiz kanpo esanahiari dagokionez?

- a) birziklagarri/ iraunkor / berrerabilgarri
- b) pozarren / burumakur / pentsakor
- c) jasangarri / berriztagarri / oroigarri
- d) giltzarri / koska / gako

36. *Kalkuluen arabera, ikasgela bakoitzean Arreta Gabeziaren Hiperaktibitate Nahasmendua duen haur bat bada gutxienez; _____, aski hedatua dago. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?*

- a) halaber
- b) hala ere
- c) dena den
- d) beraz

37. *Aitziber Garmendiari egokitu zaio rol nagusia, testuak hala eskatuta eta bere aktore-dohain _____ baliatuta. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?*

- a) lotsabakoak
- b) paregabeak
- c) odolgabeak
- d) dohakabeak.

38. Zein hitz bikote EZ da egokia?

- a) Itsaso barea.
- b) Etsai zitala.
- c) Harritzar ñimiñoa.
- d) Haragi ondua.

39. Hurrengoan artean, zein bikotetan EZ dago sinonimorik?

- a) Aurkitu, erdietsi.
- b) Nazka, higuin.
- c) Horixka, horizta.
- d) Hedatu, isuri.

40. Honako hitz elkartu hauetatik zein dago ondo idatzita?

- a) Joan-etorriak.
- b) Aurrez-aurre.
- c) Zurigorriak.
- d) Ia ia.

41. _____ *gainetik* _____ *egitean bihurritu zuen* _____. Zein da hutsuneak betetzeko aukera zuzena?

- a) Heziaren /jausi /orkatila
- b) Hesiaren /jauzi /orkatila
- c) Esiaren /jauzi /txorkatila
- d) Hesiaren /jausi /orkatilla

42. Esaldi batean EZ dago ortografia-akatsik. Zeinetan?

- a) Armairuaren goikaldean gorde ditut izarak.
- b) Iganderarte ez dute saridunaren berri emango.
- c) Kulturartekotasuna aztertuko dute jardunaldietan.
- d) Ume jaio berriak oso zaurgarriak dira.

43. Nola idazten da 9.683 zenbakia?

- a) Bederatzi mila seiehun eta laurogeita hiru.
- b) Bederatzi mila seiehun ta larogeita hiru.
- c) Bederatzimila seirehun eta laurogeita hiru.
- d) Bederatzi mila seirehun eta laurogeitahiru.

44. Hitz zerrenda hauen artean, zein dago zuzen idatzita?

- a) Lehi, ihaz, zihur
- b) Larunbata gauean, maiatza erdian, aitzakia bat
- c) Gusto, alfabetu, sekretu
- d) Sexu, testu, estra

45. Esaldi batean EZ dago ortografia-akatsik. Zeinetan?

- a) Ausnarketa zentsuduna egin beharko genuke gaiaz.
- b) Insinuazio harekin zer esanahi zuen galdetu zion lagunari.
- c) Arduraren zama guztia utzi zuten bere bizkar.
- d) Berandu iritzi zen itzordura, gaizki apuntatu zuelako agendan.

46. Honako mailegu hauetako batean EZ dago ortografia-akatsik. Zeinetan?

- a) Disziplina.
- b) Inmigrazio.
- c) Lekzio.
- d) Erreportaje.

47. Honako hitz elkartu hauetatik zein EZ dago ondo idatzita?

- a) Euskal Autonomia Erkidegoa.
- b) Itsas armada.
- c) Gizarte-laguntza.
- d) Behin behineko.

48. Esaldi hauen artean, zein dago zuzen idatzita?

- a) HIES ak ondorio tamalgarriak izan zituen 80. hamarkadan.
- b) HIESek ondorio tamalgarriak izan zituen 80.eko hamarkadan.
- c) HIESak ondorio tamalgarriak izan zituen 80ko hamarkadan.
- d) HIES-ak ondorio tamalgarriak izan zituen 80eko hamarkadan.

49. Puntuazioa. Zein dago zuzen idatzita?

- a) Latrofobia pairatzen dutenek antsietatea sentitzen dute medikuarekin zerikusia duten gauza guztiakin. Bi arrazoik eragiten dute nahasmendu hori, batzuetan, aurretik esperientzia txar bat pairatu izanaren ondorio da, beste batzuetan, berriz, larritasun orokor baten emaitza.
- b) Latrofobia pairatzen dutenek, antsietatea sentitzen dute medikuarekin zerikusia duten gauza guztiakin. Bi arrazoik eragiten dute nahasmendu hori: batzuetan, aurretik esperientzia txar bat pairatu izanaren ondorio da. Beste batzuetan berriz, larritasun orokor baten emaitza.
- c) Latrofobia pairatzen dutenek antsietatea sentitzen dute medikuarekin zerikusia duten gauza guztiakin. Bi arrazoik eragiten dute nahasmendu hori. Batzuetan aurretik esperientzia txar bat pairatu izanaren ondorio da. Beste batzuetan berriz larritasun orokor baten emaitza.
- d) Latrofobia pairatzen dutenek antsietatea sentitzen dute medikuarekin zerikusia duten gauza guztiakin. Bi arrazoik eragiten dute nahasmendu hori: batzuetan, aurretik esperientzia txar bat pairatu izanaren ondorio da; beste batzuetan, berriz, larritasun orokor baten emaitza.

50. Esaldi hauen artean, zein dago GAIZKI idatzita?

- a) Arrakasta handia izan zuen Gartxot filmak.
- b) *Elbhyar* aldizkariak betea du jada 50. urteurrena.
- c) Orokorrean, laburdurak —adibidez, *art.*, *tel.* edo *zenb.*— puntuz idazten dira.
- d) XIX. mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.

AUKERA ANITZEKO GALDERAK: ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu arretaz hiru testu hauek. Bakoitzaren amaieran, hari buruzko galderak dituzu. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra, eta adierazi ezazu erantzun zuzenari dagokion letra hiru testuen ondoren (15. orrialdean) dagoen erantzun-taulan. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

1. TESTUA:

Antibiotikoekiko erresistentzia Osasun Bakarraren ikuspegitik

Antibiotikoekiko erresistentzia gizakien zein animalien osasunari eragiten dion arazo globala da, eta ingurumenean antibiotikoak egotearekin du zerikusia. Elkarrekiko lotura hori da Osasun Bakarra edo Osasun Globala.

Albaitaritzan, antibiotikoak funtsezkoak dira gaixotasun infekziosoei aurre egiteko, bai ekoizpen-animalietan (ganadua, etxeko hegaztiak...), bai etxekoetan. Batzuetan, prebentzio-neurrirako erabiltzen dira; batez ere, animalien hazkuntza intentsiboan, infekzio-agerraldiak saihestu eta patogenoen ugalketa murrizteko. European debekatuta egon arren, herrialde batzuetan ohikoa da animaliei dosi baxuak denbora luzez ematea, hazkundera sustatu eta elikagai-efizientzia hobetzeko. Horrenbestez, albaitaritzan antibiotikoak modu indiskriminatu eta gehiegizkoan erabiltzeak erresistentziak garatzea dakar, eta, beraz, ezinbestekoa da tentuz erabiltzea: medikamentu zein dosi egokiak aukeratu behar dira, eta tratamenduaren iraupena zehaztu. Gainera, giza medikuntzan eta albaitaritzan antibiotiko berak edo antzekoak erabiltzen direnez, animalietan zein gizakietan garatutako antibiotikoekiko erresistentzia elkarrengana igaro daiteke. Hortaz, berebiziko garrantzia dauka osoko ikuspegia erabiltzeak, arazoari aurre egiteko.

Bestalde, gutxitan izaten da gogoan farmako baten “bizitza” ez dela amaitzen gorputzetik kanporatzean. Animalia-produktuetatik, eskrezioetatik eta gizaki zein animalien hondakinetatik eratorritako antibiotiko-hondarrak lurzoruan nahiz uretan metatzen dira, eta, horrenbestez, kutsatu egiten dituzte ingurune horiek. Adibidez, hondakin-urek, tratatu arren, antibiotiko-kontzentrazio esanguratsuak izaten dituzte; eta simaurretako antibiotiko-hondarrek zoruak kutsatu eta soroak ureztatu edo ongarrizteko erabiltzen diren akuiferoetan amaitzen dute. Horrek ingurune egokia sortzen du bakterio erresistenteak garatu eta ugaltzeko. Bakteriook Gai dira, gainera, beren erresistentzia-geneak beste batzuei transferitzeko.

Animalia- eta giza jatorriko bakterioen arteko gene-barreiadura kezagarria da osasun publikoaren ikuspegitik. Beraz, araudi eta jarduketa zorrotzagoak egin behar dira hondakinen kudeaketan, eta arazoak jatorritik aztertuko dituen ikuspegi integrala landu. Estrategia horretan, funtsezko alderdia da gizakien, animalien eta ingurumenaren antibiotikoekiko erresistentzia batera zaintzea. Diziplinarteko ikerketa kolaboratiboa

ezinbestekoa da antibiotikoekiko erresistentzia kontuan hartuko duten medikamentu eta teknologia berriak garatzeko. Terapia alternatiboak bilatzea eta bultzatzea ere bai. Giza medikuntzako eta albaitaritzako politika eta prestakuntza-programa bateratuak egin behar dira. Osasun Bakarraren estrategia da antibiotikoekiko erresistentziaren mehatxuaren aurka egiteko modurik onena.

Ignacio López Goñi
Nafarroako Unibertsitateko irakaslea eta Mikrobiologiako katedraduna
Elhuyar (2024) (moldatua)

GALDERAK:

1. Testuaren arabera, zein baieztapen da egia?

- a. Antibiotikoekiko erresistentzia gizakien, animalien eta ingurumenaren osasun-arazoa da.
- b. Ingurumenean antibiotikoak egoteak gizakien eta animalien osasunari eragiten dio, haiekiko erresistentzia tarteko.
- c. Antibiotikoekiko erresistentziak gizakien eta animalien osasunari eragiten diolako deitzen zaio *Osasun Globala*.

2. Testuaren arabera, zein baieztapen da egia?

- a. Ezinbestekoa da antibiotikoak albaitaritzan berez erabiltzea giza medikuntzan erabiltzen direlako.
- b. Giza medikuntzan eta albaitaritzan antibiotiko berak edo antzekoak erabiltzen badira, elkarrengana igaro daitezke.
- c. Ezinbestekoa da antibiotikoak albaitaritzan neurritz erabiltzea erresistentziak saihesteko.

3. Antibiotikoekiko erresistentzia Osasun Bakarraren ikuspegitik borrokatzeko beste arrazoi bat da...

- a. antibiotikoek ingurumena kutsatzen dutela eta ingurune egokia sortzen dutela bakterio erresistenteen garapenerako.
- b. hondakin-urek, tratatu arren, antibiotiko-kontzentrazio esanguratsuak izaten dituztela.
- c. bakterioak gai izatea beren erresistentzia-geneak beste batzuei transferitzeko.

4. Testuaren arabera, zer enuntziatu da OKERRA?

- a. Animalien eta gizakien bakterioen arteko gene-hedatzea mehatxu da osasun publikorako.
- b. Antibiotikoekiko erresistentzia kontuan hartuko duten medikamentu eta teknologia berriak garatzeko ezinbestekoa da terapia alternatiboak bilatzea eta bultzatzea.
- c. Osasun Bakarraren estrategiak ikuspegi integrala lantzea inplikatzeko du, eta, besteak beste, ezinbesteko du elkarlanean oinarritutako diziplinarteko ikerketa.

2. TESTUA:

Gizonkeria

Aspaldi ikasi genuen zein zaila zen gorputz desberdinetik kantatzea. Bertsolaritza beti ez zitzaigun etxe goxoa egin, baina lortu genuen guretzako lekua egitea. Bertsolaritzan emakumeon gorputzak baino desberdinagoak badira egun. Jantzkeraz eta izaeraz. Niri poza ematen dit. Ardura ere bai. Ez nioke neure buruari barkatuko beste batzuk gu sentitu ginen bezain deseroso senti ez daitezen ezer ez egitea. Geuretzen ari garen etxe honetan disidentzia gehiagok kabitutako behar dute; derrigor. Bestela, gizarte mugimendua izango gara agian, baina ez gara gizartearekin batera garatuko, ez aldatuko, ez ibiliko.

Gizartea ere astiro doa, dena den. Hain astiro, ze, gizon bezala sozializatutako bertsolari bat traje arrosarekin ikusteak nazka ematen baitie zenbaiti. Badirudi kantatzen duguna bezain politikoki zuzena izan behar dela agertokian performatzen duguna.

Nik neuk ez diot ezer arrarorik ikusten Aner Peritz: eskertu egiten diot den moduan azaltzeko duen ausardia. Ordea, nazka itzela ematen didate anonimotasuna eta gizonkeria gurutzatzen diren lekutik idazten dutenak.

Onintza Enbeita

Berria, 2024ko azaroa (moldatua)

GALDERAK:

5. Testuaren arabera, zer enuntziatu da **OKERRA**?

- Onintza Enbeita emakumezko bertsolariaren roletik ari da hizketan gizonezkoak nagusi zituenean mundu batean moldatzeari buruz.
- Enbeitak bidea erraztu nahi lieke gaur egun bertsolaritzan eroso sentitzeko oztopoak izan ditzaketenei.
- Enbeitaren esanetan, nahitaez behartu behar dira disidente gehiago bertsolaritzan aritzera.

6. Onintza Enbeitaren esanetan...

- gizon bezala sozializatutako bertsolari bat traje arrosarekin ikusteak zenbaiti nazka ematea gizartea oso astiro doan seinale da.
- bertsolariek ez dute zertan politikoki zuzen kantatu.
- bertsolariek kantatzen dutena bezain politikoki zuzena izan behar du agertokian performatzen dutenak.

7. Zein da egia? Artikulugilearen begietara...

- Aner Peritzek ez du ezer arrarorik, eta, horregatik, esker ona baino ez du harentzat.
- Aner Peritzek ez du ezer arrarorik, eta esker ona baino ez du harentzat bere ausardiagatik.
- ausardia itzela behar da anonimotasuna eta gizonkeria gurutzatzeko.

3. TESTUA:

Demokraziaren muga geopolitikoak

Mendebaldeko herrialdeetako demokrazia liberalak demokrazia minimalista baten itxura gero eta handiagoa du. Definizioaren muina litzateke hauteskunde bidezko gobernu aldaketak errespetatzen direla. Horren aldaera autoritarioari Levitsky eta Way politologoek *autoritarismo lehiakorra* deitu zioten. Lehia bai, baina oso desorekatua da, agintean dagoenak estatuko baliabide guztiak bere alde erabiltzen dituelako, eta oposizioaren garaipena zaildu.

Horrelako herrialdeetan neurri autoritarioak defendatu ohi dituzte, esanez gizarte zibila kanpo interesek bahitua dutela. Sarritan ez dute arrazoirik falta; izan ere, Mendebaldearen esku-hartzea lotsabakoa da. Baina, interes nazionala defendatzekotan-edo, batzuetan neurri ulergarriak hartzen badituzte ere, beste askotan aitzakiatzat erabiltzen dituzte autoritarismoa hauspotzeko.

Mendebaldean ez gaude hobeto. Gure gizarte zibila ez dago txinatarrek, errusiarrek edo irandarrek bahituta, baina Mendebaldearen hegemonia kulturalak pitzadura txiki bat du: Internet. Horrek gure demokrazia liberalak autoritarismo lehiakorrera gerturatu ditu, zentsura erabilia, disidenteei jazarrita eta, beharbada, kanpo esku-hartzea aitzakiatzat harturik, erabaki autoritarioak hartzeko.

Errumaniako 2024ko hauteskunde presidentzialetan, eskuin muturreko hautagai subiranistak lehen itzulian ezustean irabazi zuen. Mendebaldean alarma guztiak piztu ziren. Ez, noski, bere nazionalismo kontserbadoreagatik, baizik eta jarrera atlantista epelagatik eta Errusiarekin bakea lortzeko borondatea izateagatik.

NATO Errumanian Europako bere base militar handiena eraikitzen hasi da. Gauzak horrela, ez da harrigarria Errumaniako epaileek hauteskundeak baliogabetu izana eta bigarren itzulia bertan behera uztea. Aitzakia? TikTok. Antza, atzeritik kudeaturiko kontu faltsu asko ari ziren eskuin muturreko hautagaitza sustatzen. Begi guztiak Moskura zuzendu ziren, noski. Beranduago, baina, jakin dugu TikTok-eko kanpaina Alderdi Nazional Liberalak (egungo presidentearen alderdiak) ordaindu zuela: presidentearen alderdiak sare sozialetako kanpaina ordaindu zuen eskuin muturreko lehiakidearen alde eta, gero, inteligentzia zerbitzuek hauteskundeak bertan behera uzteko kanpaina hori erabili zuten "atzerriko esku-hartzea" frogatzeko.

Sinesgaitza da berriak gurean izan duen oihartzun eskasa. Azken urteetan sare sozialen eta hedabideen zentsurara ohitu gara, baina baita adierazpen askatasunaren jazarpen geroz eta zabalagora ere. Aspaldi ikasi genuen multinazionalak eta finantza munduak gure demokraziak bahituta dituztela, baina orain beste protagonista bat agertu da: geopolitika.

GALDERAK:

8. Artikulugilearen arabera,...

- a. Levitsky eta Way politologoek autoritarismo lehiakorra deitu zuten demokrazia-mota duten herrialdeetan neurri autoritarioen alde egiten dute gizarte zibila kanpo interesek bahitua dutelako aitzakiatan.
- b. neurri autoritarioak defendatu ohi dituzten herrialdeetan gizarte zibila kanpo interesek bahitua dute, eta interes nazionala defendatzeko, neurri ulergarriak hartzen dituzte.
- c. neurri autoritarioak defendatu ohi dituzten herrialdeek ez dute arrazoirik falta autoritarismoa hauspotzeko, Mendebaldearen esku-hartzea lotsagabea delako.

9. Mendebaldeko egoera dela eta, zein baieztapen da egia?

- a. Ez gaude hobeto, gure gizarte zibila ez baitago txinatarrek, errusiarrek edo irandarrek bahitzetik aske.
- b. Ez gaude hobeto, gure hegemonia kulturalak pitzadura txiki bat duelako: Internet.
- c. Ez gaude hobeto, eta gure kasuan autoritarismo lehiakorrera hurbiltzeko tresna Internet izan da.

10. Errumaniako adibideari dagokionez,...

- a. eskuin muturreko hautagai subiranistak 2024ko hauteskundeetan lehen itzulian ezustean irabazteak alarma guztiak piztu zituen Mendebaldean, presidentzialetan gertatu baitzen.
- b. Alderdi Nazional Liberalak ordaindu zuen eskuin muturreko lehiakidearen aldeko TikTok-eko kanpaina.
- c. Errumaniako epaileek 2024ko hauteskundeak baliogabetu eta bigarren itzulia bertan behera utzi zuten, TikTok bidez atzeritik kudeaturiko kontu faltsu asko ari zirelako eskuin muturreko hautagaitza sustatzen.

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

3. ARIKETA: IDAZLANA

Azpiko taulan aukeran dituzun gaietako BAT hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osotik), eta gutxienez 300 hitzeko idazlan bat egin, euskara batuan. Unibertsitateko irakasle-talde baten aldizkarirako (A aukera) edo eskolak emateko apunte bezala (B aukera). Nahitaezkoa da ongi lotzea aukeratutako gaiari.

ARLOA	GAIAK: hautatu zure arloko bi aukeretako bat	
Arkitektura	Energia-eraginkortasun birgaikuntzan	Arkitektura eta hirigintza
Arteak	Inpresionismoa	Museoen eginkizuna gaur egun
Biologia	Epigenetika	Immunitate-sistema
Ekonomia	Ekonomia zirkularra	Muga-zergak eta merkataritza
Filologia	Narratzaile motak	Bigarren hizkuntzaren jabekuntza
Filosofia	Seneka eta estoikoak	Bioetika
Fisika	Material aurreratuen propietateak	Unibertsoaren egitura
Geografia	Kartografiaren iragana eta oraina	Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa
Geologia	Tektonika	Geoteknia zer den
Gizarte-zientziak	Garapenerako lankidetzak	Ikasketa feministak
Heziketa fisikoa	Jarduera fisikoa zahartzaroan	Kirol-errendimendurako azken aurrerapenak
Historia	Errusiako Iraultza	Irulegiko eskua
Informatika	Ordenagailu kuantikoak	Adimen artifizial sortzailea
Informazioa	Ziberkazetaritza	Harreman publikoak
Kimika	Polimeroak: definizioa eta erabilerak	Nanoteknologia eta nanomaterialak
Kriminologia	Biktimentzako arreta	Gazte-delinkuentzia
Lan-harremanak	Migratuak eta lan-baimenak	Arbitrajea
Matematika	Zenbakizko analisia	Estatistikaren erabilerak
Osasuna	Gaixotasun kardiobaskularrak	Nutrizioa eta osasuna
Pedagogia	Aniztasunaren arreta	IKTak ikasgelan
Psikologia	Oinarrizko prozesu psikologikoak: ikaskuntza, memoria eta emozioak	Teknologia berrien eragina nerabeengan
Teknologia	Adimen Artifiziala	Domotika
Zuzenbidea	Testamentu motak	Giza eskubideak Europar Batasunean

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):

AZTERKETARIA:

NAN-zenbakia:

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)	EZGAI (< 32)	

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)	EZGAI (< 6)	

Idazlana

GAI	EZGAI
-----	-------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZGAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZGAI
-----	-------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO

Azterketaria:
 (Markatu X batekin azken zutabeaz zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	jokera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	jokera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: